

Matematikak

1) Kalkula ezazu

$$\begin{array}{r} \text{a.} \quad 3757 \\ - 1245 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} \text{b.} \quad 2623 \\ - 1579 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} \text{c.} \quad 1403 \\ - 857 \\ \hline \end{array}$$

$$\begin{array}{r} \text{d.} \quad 4003 \\ - 189 \\ \hline \end{array}$$

2) Kalkula ezazu nahi duzun metodoa erabiliz

a. 707 - 98

b. 3 065 - 1 097

c. 3 002 - 649

d. 2 050 - 1 736

e. 5 000 - 2 500

3) Oinez Eiffel dorre kaskora heltzeko 1665 maila (*marches d'escalier*) dira.

a. Maiak 786 maila igan ditu. Beste zenbat maila igan behar ditu kaskora heltzeko ?

b. Xanek badaki 277 maila gelditzen zaizkiola kaskorat heltzeko. Zenbat maila iganak ditu jada ?

Zientziak

Ikasgaia :
Elikagaiak

Zendako jaten dugu ?

Hiru elikagai mota desberdin badira, bakoitzak bere funtzioa betetzen du :



Elikagaiak handitzeko : muskuluak eta hezurak fabrikatzen dituzte.

Adibidez : esnea



Elikagaiak energia ukaiteko : energia emaiten diote gorputzari mugitzeko.

Adibidez : azukreak



Tresna elikagaiak : Gorputza funtzionarazten eta babesten dute.

Adibidez : hura, bitaminak.



Elikagaiak

Behar den lekuan logoak kola itzazu (logoak ikasgaiaren azpian dituzu)

